

auzoz auzo • auzoz auzo • auzoz auzo

intxaurrondo

Udazken parterako ikastaro aukera zabala dauka Larrotxene Kultur Etxeak. 18 ikastaro eskainiko ditu adin guztientzat: bideo tailerretik, sofrologia ikastaroraino.

Ikastaro guztiak Kultur Etxean izango dira, gitarrakoa izan ezik, hau Ipar Hai-zea elkartearen izango da. Izen emateko epea irailaren 30era arte luzatuko da.

Lagunak Etxekoandre Elkartearen ere, ikastaroetan izen emateko epea zabaldu du. Gimnasia, literatura eta gantxilo ikastaroak egongo dira. Informazio gehiago elkar-tearen egoitzan, Gaztelu 19.

Santa Kruz jaiak giro ona izan zuten eta sagardo egunerak bereziki, jendea erruz hurbildu zen. Parte zaharreen txosnak jarri dira aurten lehen aldiz. Bestalde, Zulo-Zahar elkar-teak esker-rrak ematen dizkie pintxo lehiaketako parte hartzaileei.

NAGORE IRASTORZA (TFNOA.: 285749)



Yeyette etxea.

Hurtzaindegia bertatik kendu zenetik, Yeyette etxea hutsik dago. Etxe hau Frantziako aristokrata batena zen eta maitale batekin elkartzen zen bertan. Orain Donostiako Udalarena da eta honek ez du erabakirik hartu hor egingo denaz. Aitonon Etxea-ren egoitza izateko proposamena atzera bota zen, emakumeentzat edota gazteentzat bilgunea izatea ere pentsatu da, baina ezer zehaztu gabe.

herrera

Bidebietako kirol ekintzak

bidebietako polikiroldegiak jarri ditu martxan 1996/97 ikasturterako aurrikusitako kirol ekintzak.

Aerobik, mantentze gimnasia, 60 plus, igeriketa, giharketa, norberari egokitu-tako entrenamendua eta ure-tako jolasak eskainiko dira aurten polikiroldegian.

Aerobik ikastaroak, bi txandatan banatu dira, bata goizez eta bestea arratsaldez. Mantentze gimnasia

egiteko ere egunero izango dira aukerak.

Ur ekintzei dagokienez, igeri egiten ikasteko, gazte-txoenentzat bi talde berezitu dira: 3 urtetik 5era bitartekoak eta 6tik 15era bitartekoak. Igeri egiten dakitenek aldiz, estiloak hobetu eta sakontzeko ikastaroak izango dituzte. Aurten uretako aerobik-a ere emango da.

Txikienentzat ere bada beste ur ekintzarik, txirris-

tak, flotagailuak eta bestelako tramankuluek babesturik, uretan eta urarekin jolas egitea izango da helburu, bide batez, beldurra ere kentzeko.

Hirurogei urtetik gorakoentzat gimnasia izango da, hainbat ariketa eta jokoren bidez gorputza osasuntsu edukitzeko.

Informazio gehiago 40-0892 telefonoan.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)



AMARAKO OSASUN GIDA

ZERBITZU SIKOLOGIKOAK:

ARRUTI-ARMENDARIZ
XABIER ARRAZOLA

Isabel II, 6, Igoa. - 30. bulegoa
Carlos I, 7, 4-B

Tfnoa: 47 35 51
Tfnoa: 45 33 51

DENTISTAK

JESUS MARI ARIZALA
CLINICA DENTAL ISABEL II
CLINICA DENTAL LANCHARES

Ferrerias Plaza, 5 behegaina
Isabel II, 6
Antso Jakituna I.I, Igoa.

Tfnoa: 45 90 45
Tfnoa: 47 07 31
Tfnoa.: 45 09 67

KARDIOLOGIA

BIHOTZ

Carlos I, 22, beheka

Tfnoa: 47 35 95